

Euskal AEn jaiotako artean izen ohikoenak Ane eta Markel dira berriz ere

Ane da 1996tik neska-izen kutunena

1996tik hona Ane da neska-izena hautatzeko tenorean gurasoen kutunena, Eustaten arabera, Euskal AEn 2016-2018 artean jaiotako izenez ari delarik. Ondoren June eta Laia daude bigarren eta hirugarren eta, jarraian, Irati, Nahia eta Nora.

Mutikoentzako izen ugariak Markel, Jon eta Julen dira, eta gero Aimar, Ibai eta Ander.

2016-2018 aldirako 25 izen ohikoenen taldean lau sartu berri dira, neskato-izenen artean, Alaia, Alba, Sofia/Sofía eta Jare, eta atera dira Leire, Naroa, Libe eta Maren, 2014-2016 aldikoekin alderatuta. Mutiko-izenei doakienez, Luken, Luka eta Aiur sartu dira taldean, Xabier, Alex eta Ekain mugituz.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du. Ehun izen ugariak artean ez dago konposaturik bat ere, garai batean oso-oso ohikoak ziren arren.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskarazko izenak dira nagusi, batzuk grafia ezberdinekin erregistratuak: June-Yune-lune, Leire-Leyre edo Jon-Ion, besteak beste, izen ezberdin bezala tratatzen diren arren. Bertsioak azenturik egoteagatik edo ez egoteagatik bakarrik bereizten direnean, Martin-Martínen bezala, biak izen berekotzat hartzen dira, eta beren maiztasunak gehitu egiten dira.

Ama atzeritarrek euskarazko izenak ere aukeratzen dituzte

Ama atzeritarrek euskarazko izenak ere aukeratzen dituzte gehienbat, baina badago alderik hurrenkera orokorraren aldean. Nesken kasuan, 5 izen kutunen artean bi daude euskarazkoak: Alaia eta Nahia hirugarren eta bosgarren postuetan daude, hurrenez hurren; zerrendako lehena Sara da, hebrear jatorrikoa, Sofía ondoren, greziar jatorrikoa, eta laugarren postuan Aya, arabiar jatorrikoa. Mutikoen artean, laugarren eta bosgarren lekua betetzen duten Ander eta Mikel dira izen euskarazkoak; lehen postua Adamentzat da, izen hebrearra, bigarrena Mohamedek du, arabiar jatorrikoa, hirugarrena Rayanek.

Amen artean Leire, María eta Nerea dira nagusi; aiten artean, Aitor, David eta Mikel

Hona hemen 2016-2018 artean ama izandakoen 10 izen ugariak: Leire, María, Nerea, Ainhoa, Laura, Amaia, Ainara, Marta, Cristina eta Estibaliz. Emakume horiek gehienak 1975-1990 artean jaio ziren; bost izen euskarazkoak zituzten hamar ugariak artean, baina gaztelaniazko izenak oraindik asko erabiltzen ziren, batez ere Mariarekin konposatuak.

Urte haietan guraso izan ziren gizonei doakienez, hauek izan ziren gehien errepikatu ziren 10 izenak: Aitor, David, Mikel, Jon, Iker, Javier, Asier, Iñigo, Gorka eta Iñaki. 1973-1988 artean jaiotako gizonak ziren gehienak kasu horretan, garai bat zeinetan izen konposatuak jada sinpleei bidea uzten zieten eta euskarazkoak nagusi ziren.

Euskal AEn jaioen 25 izen ugariak. 2016-2018

	Neskak			Mutilak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	641	2,56	Markel	587	2,22
2	June	526	2,10	Jon	571	2,16
3	Laia	476	1,90	Julen	518	1,96
4	Irati	436	1,74	Aimar	457	1,73
5	Nahia	406	1,62	Ibai	456	1,73
6	Nora	376	1,50	Ander	442	1,67
7	Noa	367	1,47	Oier	442	1,67
8	Maddi	361	1,44	Mikel	410	1,55
9	Lucía	348	1,39	Martin\Martín	399	1,51
10	Izaro	342	1,37	Unax	380	1,44
11	Malen	337	1,35	Danel	368	1,39
12	Uxue	306	1,22	Oihan	353	1,34
13	Sara	305	1,22	Izei	331	1,25
14	Haizea	295	1,18	Iker	325	1,23
15	Alaia	263	1,05	Unai	312	1,18
16	Martina	248	0,99	Ametz	285	1,08
17	Paula	245	0,98	Eneko	274	1,04
18	Enara	232	0,93	Luken	250	0,95
19	Maialen	226	0,90	Beñat	244	0,92
20	Iraia	207	0,83	Luka	244	0,92
21	Elene	203	0,81	Hodei	241	0,91
22	Jare	201	0,80	Alain	240	0,91
23	Sofia\Sofía	182	0,73	Aner	236	0,89
24	Naia	197	0,79	Aiur	231	0,88
25	Alba	179	0,72	Hugo	229	0,87

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62